

43 eguneguz egun

2012ko abendua



Berdintasun saila sortu da,  
emakumeen elkarlanerako

2 iritzia 3 gizartea: alkoholiko anonomoen elkarte 4 euskara 5 elkarrizketa: herrira  
6-7 berdintasuna saila 8 gazte lokalak 9 kiroldegiko lokalak 10-11 laburrak 12 agenda

Beasaingo udal aldizkaria  
**beasain**



Beasaingo udala

## Gabonen atarian

Leerro hauen bidez legegintzaldi hau nolako indarrarekin eta nolako intentsitatearekin lantzen ari garen jakinarazi nahi dizugu. Gogor eta ilusioz ari gara lanean zuon guztion beharrak betetzeko eta konpontzeko, banan-banan bakoitzari entzunez eta erantzuna eman ez. Gure ekimenak ongi hartzen ari zarete, eta hala jarraitzeko asmoa dugu.

Gabonak gerturatzeko ari dira eta Gabonetan soiltasuna eta ilusioa, irudimena eta lankidetzaz bultzatu nahi ditugu. Horretarako, Gabonetako apaingarriak material birziklatuz egindakoak izateko hezkuntza proiektu bat jarri dugu martxan. Aurki jakingo duzue zertaz ari garen hizketan, batzuek zuen etxean bertan, gainera. Izan ere, Beasaingo ia ikasle guztietako 740 ikasle parte hartzen ari dira aipatutako proiektu honetan; kaleak alaitasunez eta kolorez bete ditek dituen proiektua da.

Gabonetako apaingarriekin lotuta, udaleko Turismo eta Merkataritza sailetik proposatu dugu herriko kaleen dekorazioa merkatarik elkarrekin eskuz egon beharko litzatekeela, beste hainbat herritan

.....  
mari mar celaya • udaletik  
.....



egiten den moduan. Baina aurten ez da posible izango, eta datorren urtean gure eskaintzak harrera hobea izatea eskertuko genuke.

Bukatzeko, Gabon hauetan hainbat familia bizi duen egoera kontuan izateko eskatzen dizuegu, eta elkarrekin solidarioak izateko. Erosketak egiteko herriko eskaintza erabiltzera ere animatu nahi zaituztegu, horiek eskaintzen duten kalitatea eta aukera aniztasuna aprobetxatuz. Eta zer esanik ez datozen egunetan herrian antolatuko diren ekintzen inguruan: animatu eta gozatu herrian bertan!

•• Gabonetako jai egun hauetan elkarrekin solidarioak izateko eskatzen dizuegu ••

Me gustaría comunicaros la intensidad y fuerza con la que estamos afrontando esta legislatura. Trabajamos duro y con ilusión para atender y solucionar las necesidades de los ciudadanos. Estas próximas Navidades nos gustaría unir austeridad e ilusión, imaginación y colaboración, poniendo en marcha una actuación de decoración festiva, reciclaje y proyecto educativo. 740 escolares de los centros educativos de Beasain participan en un proyecto que inundará las calles de alegría y color. Apostamos así mismo por pedir a todos y a todas que estas fiestas seamos conscientes de las dificultades que están padeciendo cada vez más familias, y nos apoyemos con pequeños gestos solidarios. Utilizar los comercios cercanos para realizar nuestras compras generando así una corriente solidaria con lo cercano. Por último animaros a participar en las actividades que se organizan.

.....  
**inkesta** zer iruditzen zaizkizu zinemaren funtzionamenduan izandako aldaketak?  
.....



Isabel Rodriguez

Tener una programación de todo el mes está muy bien porque no tienes que andar viniendo hasta aquí. Y tampoco tienes necesidad de ir hasta Donostia, porque las películas llegan muy rápido. El bono y el día del espectador también están muy bien. Todo lo que sea motivar a la gente me parece bien.



Javier Arizkorreta

Zegararra naiz, baina andreak eta biok zinemara joateko ohitura handia dugu, eta askotan Beasaina edo Ordiziara joaten gara, pelikularen arabera. Baina askotan film bera jartzen dute bertan, eta ondo legoke koordinazio gehixeago egotea. Ondo dago jendeak zinea kontsumitzeko neurriak hartzea.



Leire Plazaola

Aukera ona da jendea herrian bertan gelditzeko, bestela Donostia aldera joaten gara eta. Hilabeteko programazioa aurrez jakinda, jendea bertan gelditzea errazagoa da. Bonoaren sistema ere oso ondo dago; bi aldiz etorrira amortizatzen da. Pelikula berriak azkarrago ekartzen dituztela ere iruditzen zait.

# Alkoholismoaren kontrako lan ixila

Beasaingo Alkoholiko Anonimoen taldeak 32 urte bete ditu aurten, eta udalak oroigarria eman dio

**P**ertsona batek alkoholarekin arazok dituenean, bere baitan ixten da eta ez du bere arazoaz hitz egiten. Hemen kontrakoa egiten dugu, hitz egin, norbere kasua kontatu eta besteenak entzun, eta elkarrengandik ikasi. Eta hitz egiten dugun bitartean ez gara alkoholarekin gogoratzen». Hala kontatu du astero astero Beasainen biltzen diren Alkoholiko Anonimoen taldeko kideetako batek. Aurten Beasaingo taldeak 32 urte bete ditu, eta Beasaingo Udalararen esker ona eta oroigarria jaso zituen Boluntario Egunaren harira.

Alkoholiko Anonimoen Beasaingo taldea 1980ko urrian sortu zen, Ordiziako taldean aritutako batek, herrian bertan ere talde bat sortzea erabaki zuenean. Harrezkero dozenaka lagun pasa dira, urtero. Beasaingoa, Goierriin dauden bost zentroetako bat da. Gipuzkoan 38 talde daude guztira; eta mundu mailan ere, 180 bat herrialdetan daude zabaldua.

Alkoholiko Anonimoen elkartean, astean bitan (astearte eta larunbatetan) biltzen dira, eta taldeko terapia egiten dute. «Eroso sentitzen garen gune bat da. Hemen nolabait ere, bizkarrean daramagun motxila hori deskargatzen dugu. Barruko amorru hori atera eta lasaitu egiten gara. Nik neuk, esaterako, hemen esan ditut gauza asko familiari ere esan ez dizkiodanak. Bihotzetik ateratzen direlako. Eta nik nire kasua kontatzean beste batek esan dezake, "nik kasu honetan hau edo beste egin nuen eta ondo etorri zitzaidan". Horrela, elkarren makulu lana eginez eta elkar lagunduz egiten dugu aurrera». Ez dute



Animotasuna gorde behar dute elkarteko kideek. Irudian, Beasaingo taldea.

epe luzerako helbururik jartzen, egunean egunekoak begiratzen dute. «Gaur ez dut edango. Hori esaten diogu geure buruari. Ezin duzu epe luzerako planik egin, gutxien espero duzunean berriz eror zaitezke eta. Horregatik 24 orduko epeak jartzen ditugu. Gaurkoa pasa eta bihar biharkoa. Bihar berriz esango dugu, 'gaur ez dut edango'. Eta horrela edateko antsia hori desagertu arte».

Norbera alkoholikoa dela onartzea, asko kostatzen dela aitortzen dute. «Normalean familiak bultzatuta, edo lanak eta beste zirkunstantzia batzuk bul-

•• «Alkoholiko hitza oso potoloa da eta kosta egiten da hori irenstea, alkoholikoa zarela onartzea» ••

tzatuta etortzen zara. Eta konturatzen zarelako zeure buruari zer egiten ari zaren. Baina alkoholiko hitza oso potoloa da, eta kosta egiten da hori irenstea, alkoholikoa zarela onartzea». Hala ere, garbi dute behin arazoa onartuta, «betan edateari uzteko gogoia baduzu, taldeko bileretara etorri eta lan egiten baduzu, kasuen %99an lortzen da. Baina lan egin behar da».

## Gazteak eta gurasoak gustura

Inguruan alkoholarekin arazoren bat duenik bada, elkartearekin harremanetan jarri besterik ez du. Horretarako bulego bat dute Tolosan (943 24 84 74 / 629 141 874), eta handik bideratuko dute Gipuzkoan dituzten 38 taldeetako batera; askotan alkoholikoak ez baitu bere herriko taldera joan nahi izaten, gizartea aldatzen ari bada ere, oraindik gaiak tabua izaten jarraitzen baitu.

Alcohólicos Anónimos de Beasain es la asociación homenajeada del Día del Voluntariado de este año. El grupo de Beasain se creó hace 32 años, en octubre de 1980. Se juntan dos veces a la semana (martes y sábados) y hacen terapia de grupo. «Es un sitio donde nos sentimos cómodos y podemos descargar la mochila que llevamos encima». Dicen

que hablar entre ellos y compartir experiencias les ayuda. «No hacemos planes a largo plazo, el objetivo es el día a día. Siempre decimos: Hoy no voy a beber. Y mañana, cuando me levante, diré lo mismo: Hoy no voy a beber». Una de las cosas más difíciles es dar el primer paso, aceptar la enfermedad. «La palabra alcohólico es un sapo que tienes que tra-

gar, y cuesta digerirlo, aceptar que eres alcohólico». Pero si de verdad se quiere dejar de beber, si se va a las reuniones, el 99% lo consigue. Quien tenga problemas con el alcohol o necesite ayuda, puede llamar a la oficina central de Gipuzkoa (943 24 84 74 / 629 141 874); allí le informarán sobre los grupos que hay en Gipuzkoa, 38 en total.



## II. Mintzodromoa egingo da aurten, Euskararen Egunean

Abenduaren 3an, Euskararen Egunean, 19:00etatik 20:00etara, II. Mintzodromoa, euskararen erabilera indartzeko ekimena, antolatu dute udalak, udal euskaltegiak eta AEK euskaltegiak.

**E**uskararen Eguna ospatuko da abenduaren 3an, eta iaz bezala, udalak eta herriko euskaltegiek euskaraz hitz egiteko Mintzodromoa ekimena antolatuko dute. Loinazko San Martin plazaren azpian elkartuko dira, 19:00etatik 20:00etara. Ekimenarekin, euskaldun berriak eta euskaraz jakin arren egunerokoa erabiltzen ez dutenak euskaraz egitera animatu nahi dituzte. Helburua euskararen erabilera bultzatzea izango da, euskara erabiltzen dutenen sarea zabalduz. Launaka eseriko dira, eta 15 minutu izango dituzte gai bakoitzaz mintzatzeko. Mintzodromoan parte hartu nahi dutenek, udaleko kultura eta euskara zerbitzura, AEK-ra edo udal euskaltegira jo behar dute.

El ayuntamiento y los dos euskaltegis del pueblo han organizado la segunda edición del Mintzodromoa, iniciativa



lazko Mintzodromoa arrakastatsua izan zen.

que busca reunir a gente para hablar de varios temas, pero siempre en euskera. Se reunirán de 19:00 a 20:00 debajo de la plaza San Martin. Se reunirán en grupos de cuatro personas donde esta-

rán personas euskaldunes y alumnos, y tendrán 15 minutos para hablar de cada tema. Para apuntarse hoy que ir al departamento de cultura, a AEK o al euskaltegi municipal.

## Euskal liburu eta disko azoka

Abenduaren 14tik 16ra, Loinazko San Martin plaza azpian, euskal liburu, disko eta jostailuen azoka antolatu dute. Aurten, lehen aldiz, Goierriko beste azokekin elkarlanean antolatu dute.

**U**dalak Euskal Liburu eta Disko Azoka antolatu du aurten ere. Abenduaren 14tik 16ra izango da, eta hainbat berrikuntzekin dator. Aurrenekoa, Lazkao, Ordizia eta Segurarekin elkarlanean antolatuko dutela da. Bestalde, Gernika pasealekuko frontoian egin beharrean, Loinazko San Martin plazaren azpian egingo dute. Produktu guztiek %15eko beharpena izango dute. Hainbat ekintza ere izango da. Ostiralean, dantzariak (18:30), bertsolariak (19:00) eta *Hil arte bizi* antzezlan (20:00) antolatu dituzte.

### Ordutegia

**Abenduak 14:**  
10:00-13:00 eta 17:00-20:00.

**Abenduak 15:**  
11:00-14:00 eta 17:00-20:00.

**Abenduak 16:**  
11:00-14:00 eta 17:00-19:00.

El ayuntamiento de Beasain ha organizado la Euskal Liburu Azoka de este año junto a los pueblos de Ataun, Lazkao, Ordizia y Segura. Se celebrará entre los días 14 y 16 de diciembre. El escenario será otro de los cambios de este año; en vez del frontón del paseo Gernika, la feria se hará bajo la plaza San Martin. Todos los productos tendrán descuentos del 15%. También organizarán varias actividades. El viernes, por ejemplo, habrá bailes (18:30), bertsos (19:00) y la obra teatral *Hil arte bizi* (20:00)

Sergia Garaialde eta Joseba Zurutuza Herrira ekimena

# “Dispertsioa, presoentzat ez ezik, senideentzako zigorra ere bada”

Euskal preso eta iheslari politikoek esku-bideen alde egiteko asmoz sortu zen Herrira mugimendua. Euskal Herri mailako ekimena bada ere, herriz herri taldeak sortu dituzte, horietako bat Beasainen. Hilero egiten dituzte taldeko bileak eta elkarretaratzeak.

**Nola sortu zen Herrira mugimendua?**

**Joseba Zurutuza:** Azken urteotan sortu den egoera politiko berriaren harira, eta Bilbon urte hasieran egin zen manifestazioan jendeak emandako bultzadarekin, ikusi zen bazegoela biltzeko eta preso eta iheslari politikoek alde lan egiteko grina bat. Eta horren bueltan antolatu eta talde moduan lan egiteko asmoarekin sortu zen Herrira.

**Eta Beasainen, zer nolako lan taldea eta funtzionamendua dituzue?**

**Sergia Garaialde:** Hilero biltzen gara, udaletxean. Normalean hamabost bat lagun izaten gara, eta giro polita dugu gure artean. Jendeari animatzeko esango nioke, bakoitzak ahal duen neurrian, baina denon artean, gauzak egin daitezkeelako. Azkenean, zenbat eta jende gehiago egon, gauza gehiago egin daitezke, ideia gehiago daude.

**Beasaingo zenbat preso daude une honetan, eta zein da haien egoera?**

**JZ:** Sei beasaindar daude preso, denak sakabanatuta. Hiru ditugu Frantziako espetxeetan eta beste hiru Espainiakotan. Eta beasaindarrak ez bada ere, Goierriin badugu osasun egoera larrian dagoen preso bat, Inma Berriozabal zegamarra; historial kliniko larria du eta nahiz eta espetheen instituzioak askatasun eskaria egin, auzitegiek atzera bota dute, eta egoera larrian dago.

**Presoek bizi duten egoeraren aurrean, zer eskatzen du Herrirak?**

**SG:** Eskaerak oso garbiak dira. Salbuespen egoerarekin bukatzea da horietako bat. Preso bakar batek ere ez luke egon behar salbuespen egoeran, eta hemen euskal preso politikoek egoera hori aplikatzen da. Hori ez zailgu legezkoa iruditzen. Preso bat atxilo-



Sergia Garaialde eta Joseba Zurutuza, Herrira mugimenduko kideak.

tzen denean isolatuta izatea ere ez da demokratikoa, ezta etxetik urruti edukitzea ere. Preso batek askatasuna galduko du, baina ez du besterik galdu behar; zigor bat jarri zaio, eta ez dago zigor gehigarririk jarri beharrik.

**Dispertsioa zigor bikoitza dela esaten da, senideei ere eragiten dielako.**

**JZ:** Bai, senideentzako ere zigor bat da, kilometro asko egin beharra eta kostu ekonomiko handia eragiten dielako. Batez besteko bat eginda, presoek 600

bat kilometroko sakabanaketa jasaten dute, batzuk gehiago, besteak gehixago, baina hemen inguruan ditugunak gutxiengoa dira. Eta senide askok bisita egiteko asteburu osoa pasa behar dute, errepidean ordu asko eginez. Baina senideentzako ez ezik, presoarentzako ere zigor psikologiko bat da, ze beti senideak bidean ondo egongo diren ardurara horrekin egon behar du.

**Garagardo azoka egin zenuten urrian. Aurrera begira zer ekimen antolatuko dituzue?**

**JZ:** Garagardo azoka antolatzen dugun lehendabiziko aldia izan da, aukera hori eskaini digute eta nahiko gustura gelditu gara. Baina hori herri mailan baino gehiago, eskualde mailan planteatutako zerbait izan zen, bestela haundiegi geldituko zitzaigun eta. Herrirak eskualde mailan emandako erantzunarekin gustura gaude. Gabonei begira, oraindik zehazteko badago ere, plangintza bat egiteko asmoa dugu; baina presoek inguruan ekimenak izango dira. Eta urtarrilaren 12an, nazio mailako manifestazioa egingo da Bilbon. Eta aurreko urteetakoak ikusita, hura ere jendetsua izatea espero dugu.

•• «Ningún preso debería estar en estado de excepción, pero esa situación se repite con los presos vascos» ••

•• «La dispersión supone también un castigo para los familiares, por los kilómetros y el coste económico» ••

# Berdintasun saila sortu du udalak, emakumeen elkarlanerako

Udaleko Berdintasun Saila lanean ari da urriaz geroztik; herrian dauden emakume taldeekin eta dagoeneko berdintasunaren arloan lanean ari diren eragileekin bilerak egiten ari dira.

**B**erdintasun arloko gaiak Ongizate sailetik bideratzen ziren orain arte; urritik aurrera, ordea, sail propioa izango du Beasaingo Udalean, Eli Manterola teknikariaren gidaritzapean. Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasun plan integrala definitu eta garatzen hasteko abiapuntua izango da Berdintasun Saila. «Bere-tako berdintasun politika sustatzeko beharrezko zerbitzua da Berdintasun Saila», dio Eli Manterola Berdintasun teknikariak.

Udala emakumeengana gerturatzeko aukera ere emango du Berdintasun Sailak; «harreman iraunkorra bilatuko dugu». Biler horietatik, arlo desberdinetako emakumez osatutako talde bat sortzea da asmoa, emakumei esparru propioa eskaintzea, «udalean emakumeen ikuspegitik iritzi eta ahots iraunkorra izateko».

Dagoeneko bilerak egin dituzte Asmube emakume elkartearekin, etorkinekin eta emakume baserritarrekin. «Taldea desberdinetan biltzen diren emakumeak elkartu ditugu, beraien beharrak zeintzuk diren jakiteko», dio Eli Manterolak. «Lehenengo harremanetan jendea oso gustura ikusi dugu. Asmubekoak oso gustura daude, sail hau martxan jartze-



Baserrian bizi diren emakumeek ere parte hartu dute prozesuan.

## Abenduak 10

Berdintasun Sailaren hurrengo bilera abenduaren 10ean egingo dute, 17:00etan, udaletxeko batzar aretoan. Emakumezko guztientzat irekia izango da.

agatik eta teknikari bat jartzeagatik, zuzen-zuzeneko harremana izango duena. Musulmanak eta emakumezko baserritarrak harrিতa zeuden beraiei deitu diegulako», gaineratu du. Hurrengo bilera abenduaren 10ean egingo dute, 17:00etatik 19:00etara. «Deialdi irekia egingo dugu. Hor ikusiko da hurrengo pausua zein izan litekeen».

Hasta hace poco, las políticas de igualdad se dirigían desde el departamento de bienestar, pero desde octubre, tienen su propio departamento en el ayuntamiento, bajo la batuta de Eli Manterola, técnico de igualdad. El Departamento de Igualdad quiere ser el punto de partida para definir un plan integral de igualdad entre hombres y mujeres. Según Manterola, «el departamento es un instrumento necesario para llevar a cabo políticas reales de igualdad».

●● «Buscaremos una relación continua con las mujeres, y trabajaremos para que sus opiniones se vean reflejadas en el ayuntamiento» ●●

El departamento, también servirá para estrechar lazos entre las mujeres del pueblo, estén asociadas o pertenezcan a grupos o minorías. Durante el mes pasado se han reunido con la asociación Asmube, con mujeres baserritarras y mujeres inmigrantes, para conocer sus necesidades y lo que se puede hacer en cada sector. La próxima reunión será el día 10, a las 17:00, en el ayuntamiento. «Es una convocatoria abierta donde se decidirán los siguientes pasos a dar».



## Asmube: «Emakumeen arloa jorratu behar da»

Asmube elkarteko (Beasaingo Emakumeen Elkarte) kideak pozik daude Beasainen Berdintasun Saila sortu dutelako. «Emakumeen arloa eta egoera jorratzeko beharra bazegoen. Beasain baino herri txikiagoetan badaude teknikariak, eta Beasainen ere emakumeen arlorako teknikari baten beharra ikusten genuen, udaletxean lan egiteko eta dinamizatzeko».

Aldi berean, integragarria iruditzen zaie arlo ezberdinetako emakumeak elkartzea. Izan ere, «berdintasuna ez da bakarrik emakume elkarre jakin baten alorra; nekazari munduan ere emakumeak daude, dendari mun-

duan ere bai, etorkinak eta beste egoera askotakoak. Eta horien arteko elkarlana ere bultzatu behar da», diote Asmubekoek.

Asmubekoak Goierri mailako elkarlana ere garrantzitsua ikusten du. «Ordizian eta Lazkaon daudenekin ere koordinatu eta ekintzak ere elkarlanean egiteko aukera egongo litzatekeela uste dugu. Behintzat batek egun batean zerbait antolatzen badu, besteak egun berean beste zerbait ez dezala egin. Koordinazio gehiago azkenean. Eta horretarako teknikari bat beharrezkoa da», gaineratu dute.

## Emakume musulmanak: «Elkartzeko lokala behar dugu»

Etorkinek euren lekua izatea da Berdintasun Sailaren helburua. Eli Manterola Berdintasun teknikariak gonbidatuta hainbat musulmanek parte hartu dute bileretan. Argazkian ateratzerik ez zuten nahi izan baina beraien iritzia eman dute Berdintasunaren gaiaren inguruan. «Lehenengo bilera oso interesgarria izan zen. Bost emakume musulman joan ginen lehenengo bilerara eta laister gehiago bilduko gara». Marokoarrak eta aljeriarak dira denak, eta 5-6 urte daramatzate Beasainen bizitzen.

Euren behar edo aldarrikapenetan, lokal bat izatea dago. «Lokal bat edo garaje bat edukitzea gu elkartzeko, eta haurrei arabiarra erakusteko. Ez dugu ikasteko lekurik», diote.

Lanari buruz eta emakumezko musulmanek eramaten duten beloaren ondorioez ere hitz egin dute bileran. «Lana ere behar dugu. Gure beloaren ondorioz, ez digute lanik ematen. Hemengo jendeak ez du konfiantzarik gugan». Azkenik, etxebizitza duinagoak ere eskatzen dituzte.

احتاج مكان للتدريب  
 السيدات  
 باسم التي شاركت في الدورة التدريبية في اشلح بعلق  
 حقوق المساواة بين الجنسين. اتمنى اننا نتمكن  
 من تنظيم في قريتنا القريبة  
 دائما بشلح انما مكان للإستماع لميختة فيديوهات  
 تعليمية وبناتنا الاعداء العربية لندرك  
 بعد شكنا باننا انهم ان نجمع ايشا قنا انما  
 حيا لانا نجد صعوبات كوننا متصديات في اشلح  
 ان نوجد شروحات العمل وكذا اشلح اننا نتمكن ان نعلم  
 شكرا  
 السيدات وبناتنا  
 حشوات هنا

## Emakume baserritarrak: «Eskaera batzuk egin ditugu»

Emakume baserritarrak ere gustura daude Berdintasun Sailaren sorrerarekin. Lehenengo bileran oso gustura egon zirela aipatu dute. «Geure burua baloratuko dugu pixka bat. Askotan ez gara geure buruaz pentsatzen gelditzen. Baina Elik egin dizkigun galderekin, konturatu gara, gauzak ez ditugula hain gaizki egin. Orain arte saiatu izan gara gauzak aldatzen. Gazteagoak izan ginenean, laguntza gehiago behar genuen, baina pixkanaka joan gara gure bidea bilatzen, berdi-

tasun hori bilatzen. Umeak eskolara guk ekarri behar izaten genituen, eta orduan egin zitezkeen hainbat gauza, baina hori dena pasatuta daukagu. Eskola eramankartzeko horretan oso gaizki pasatu genuen. Gaur egun argia badaukagu, eskutitzak etxeraino eramaten dizkigute, errepidea ondo dago... gazteagoak ginenean baino hobeto gaude». Dena den, eskaera batzuk egin dizkiote Berdintasun teknikariari: bide onari eustea eta argia behetik gogainokoa edukitzea, adibidez.

# Gazte lokalen erabilera adostuz

Gazteentzako aisialdirako lokalen erabilera zehaztu nahi du udalak; gazteekin biltzen ari dira.

**A**zken urteetan asko ugarritu da herriko gazteek beraien aisialdirako hartzen dituzten lokalen kopurua. Azken aldia hainbat arazo izan dira bizilagunekin, eta lokal horietako askok ez dituzte gutxieneko segurtasun baldintzak betetzen. Hori dela eta, udala lanketa bat egiten ari da, bai gazteekin eta baita lokalen jabeekin ere, lokal horien erabilera eta betebeharrak denon artean adosteko. Udaleko bi zinegotzi lokal horiek ezagutzen izan dira, eta gazteekin zuzenean hitz egiteko aukera izan dute. Lokalen jabeekin ere egin dute bilera bat.

Aitor Larburu zinegotziak azaldu duenez, lanketa horren helburua «elkarbizitza egoki bat lortzea da, denok elkarrekin bizi behar dugu eta». Bere hitzetan, «udala kontziente da behar batzuk eta betebeharrak batzuk daudela, eta hori erregulatze aldera egin nahi dugu ahalgin hau».

Garbi utzi nahi izan du beraien ez direla gazteei ezer inposatzearen edo ezer debekatzearen aldekoak. «Jende askok esan digu ez dagoela araudirik eta araudi bat atera behar dela; baina beste herri batzuetan dituzten araudiak begiratuta, konturatzen gara haiek zorrotz aplikatuz gero, hamabost lokaletik hamar itxi egin beharko lirakeela. Baina hori ez da guk nahi duguna». Horregatik udalaren asmoa «gazteekin egon eta beraien esateko dutena entzutea da eta geure partetik ulertarazi ez gaudela beraien kontra, baina elkarbizitza bermatzeko baldintza batzuk bete behar dira. Modu positibo batean».

Gazteen partetik denetariko erreak-



Lokalak «elkartzeko eta aisialdirako alternatiba» direla diote gazteek.

zioak izan badira ere, orokorrean «jarriera ona eta parte hartzeko borondatea» ikusi dutela azaldu du Larburuk.

## Eta zer diote gazteek?

Lokal horietan biltzen diren gazteetako bat da Joseba Albizu. Ezkiaga kalean dute lokala, eta beraietzat «elkartzeko gunea» dela azaldu du. Elkartzeko eta aisialdirako alternatiba moduan ikusten dute, eta besteak beste, filmeak ikusi, musika entzun eta bideo-jokoetan aritzen dira. Hasiera batean kezka hartu dute udalaren proposamena, ez dakitelako araudi berri horrek zer eskatuko dien lokaletako gazteei. Hala ere, «udalarekin hitz egiteko prest» daudela dio. Su itzalgailuak jartzearen moduko neurriak begi onez ikusten ditu, baina bere ustez obraren bat eskatuz gero, beraien ezingo diote kostuari aurre egin.

Antzeko iritzia agertu dute Txantxiku jolas aretoa zegoen lokalean biltzen diren gazteek. «Bi urte daramatzagu hemen eta ez dugu sekula bizilagunekin arazorik izan, horregatik gure kasuan behintzat ez dugu uste araudi baten beharrik dagoenik». Lokaletan biltzen diren gazte asko, «araudia zorrotz aplikatuz gero, lokaletik bidaliko dituzten beldur» direla azaldu dute. Hala ere, udalarekin biltzea eta haien iritzia jasotzea begi onez ikusten dute. «Momentuz bilera bat egin dugu; beste herri batzuetako ordenantzak erakutsi dizkigute, eta gure iritzia emateko aukera izan dugu; berez planteamendua ez zaigu gaizki iruditzen, baina gero ikusi beharko da hortik zer ateratzen den eta nola aplikatzen den. Behintzat gure iritzia kontuan hartuko dutela diote, eta abiapuntu hori ez da txarra».

En los últimos años, cada vez más jóvenes buscan locales para reunirse. Suelen ser bajeras de alquiler, que muchas veces no cumplen las condiciones mínimas de seguridad e higiene. También ha habido algunos problemas con los vecinos. Todo ello, ha llevado al ayuntamiento a poner en marcha un proyecto para, junto a los jóvenes, esta-

•• Los jóvenes dicen estar dispuestos a colaborar, pero ven con preocupación la creación de un reglamento, por las consecuencias que les pueda traer ••

blecer un reglamento de condiciones mínimas. Estas semanas se han reunido tanto con los jóvenes como con los propietarios de los locales. Según el concejal Aitor Larburu, el objetivo es «lograr una buena convivencia» y para ello creen necesario regular la situación de los locales, pero sin imponer nada e intentando llegar a consensos con los jóvenes.



# Kiroldegiko sorkuntzarako lokalen parte-hartze prozesua egin dute

Udalak parte-hartze prozesua burutu du herriko hainbat talderekin, lokalen araudia adosteko.

**B**easaingo Udala kiroldegiko sorkuntzarako lokalak berritzen ari da, eta horien erabilera, parte hartze prozesu baten bidez ari dira zehazten. Lokal horiek erabiltzen dituzten gazteekin hainbat bilera egin dituzte. Orain, prozesu horren emaitzak aterako dituzte, eta talde bakoitzak, sorkuntza proiektu bat egin beharko du, zer egiteko asmoa duten eta herriko ekitaldietan parte hartzeko prest dauden azalduz. Lanak ere bide onean doaz, eta urtea bukatzerako amaituta izatea espero du udalak.

Parte hartze prozesu horren baitan, hiru bilera egin dituzte azaroan, Emun enpresako dinamizatzaileek gidatuta. Aurreneko bileran, hamabi bat lagun bildu ziren, musika taldeetako kideen eta udal ordezkarien artean. Beste gauza batzuen artean, gazteek lokal horien inguruan zer espero duten landu zuten.

Hurrengo saioa azaroaren 19an izan zen, eta hartan «lehenengoan baino jende gehiago» izan zela azaldu du Mikel Apaolaza teknikariak; «denera 19 lagun bildu ginen». Bileran hartan, «guxieneko baldintza batzuk zehaztu genituen, funtzionamenduari eta erabilerari dagokionez». Hala, udalarekin harremana izango duen batzordea nola osatuko den, edota lokalen segurtasuna eta garbitasuna bezalako puntuak landu zituzten. Azken bilera, berriz, azaroaren 26an egin zuten, kiroldegian bertan, eta lokalak ikusteko aukera izan zuten.



Kiroldegian 29 lokal egokitu dituzte; lanak datozen asteetan bukatuko dituzte.

Udalak azaldu duenez, «lanak ondo» doaz; «egitura eta lokalen banaketa eginda dago, eta epeak betetzea eta abendua bukatzerako amaituta egotea espero dugu». Guztira 29 lokal egokitu dituzte, lehen zeudenak baino lau gehiago, eta baldintza hobetan.

Gazteak ere «harrিতa» gelditu dira emaitzarekin. Taldeetako kide batek azaldu duenez, «orain arte diru pixka bat zegoenean lantxoren bat egiten zen, baina partxeak izaten ziren. Udalari esan genion behin hasita obra txukun bat egiteko, eta itxura ona dauka».

El ayuntamiento ha puesto en marcha un nuevo proceso de participación, de cara a establecer el funcionamiento de los locales del polideportivo. Para ello se han reunido con los representantes de distintos grupos. La primera reunión se celebró el día 12 de noviembre. Además de los representantes de participa-

ción y juventud del ayuntamiento, también fueron los técnicos de la consultora Emun y siete representantes de los grupos de música. La segunda reunión, del 19 de noviembre, tuvo más éxito, y se reunieron 19 personas en el palacio de Igartza. En dichas convocatorias se trataron temas como las condiciones de se-

guridad e higiene, el funcionamiento de los locales, o la formación de una comisión que representará a los grupos en las reuniones con el ayuntamiento. El día 26 visitaron las obras, y desde el ayuntamiento dicen que esperan que se cumplan los plazos, y las obras se acaben antes de fin de año.

# Aurrekontuaren lanketa martxan da

Krisiak baldintzatutako aurrekontua izango da, sarrerek ere behera egin baitute; lehentasunak finkatzeko, herritarrekin, alderdiekin eta eragileekin biltzen ari da udala

**B**easaingo Udalak dagoeneko martxan du 2013ko udal aurrekontua lantzeko prozesua. Azken asteetan eta abenduan zehar, herritarrekin, eragileekin eta alderdi politikoekin biltzen ari dira, urtea bukatu aurretik, edo beranduenera urtarrilean, aurrekontua osatu eta udalbatzak onar dezan.

Aurrekontu hori, ekonomia krisiak baldintzatutakoa izango da; «ezin izango da nahi den guztia egin, baina herria ez da geldirik geratuko» azaldu dute. Horretarako, ordea, alde guztiek «arduraz eta adostasunak bilatuz» jokatu behar dute. Hala, «lehentasunak behar bezala kokatzeko denen iritzia jasotzeko prest» agertu dira.

•• Datorren urterako aurreikusitako diru sarrerek nabarmen egin dute behera, 13 milioi euroen azpitik, 2007. urteko aurrekontuen mailan ••

Datorren urterako aurreikusitako diru sarrerek nabarmen egin dute behera, 13 milioi euroen azpitik, hau da, 2007ko aurrekontuen mailan. Epe horretan gastu korrontek ere gora egin du; hori dela eta, kudeaketarako gertatzen den tarte gero eta txikiagoa dela azpimarratu dute. Hala ere, udal gobernuak prestatu dituen kontuetan, «inbertsioek ere beren lekua» izango dutela azaldu dute, eta «ezinbestekoak diren egitasmoak burutzeko gai» izango direla gaineratu dute.

2012ko kontuen balantzeari dagozkionean, «%90ean gauzatuta edo gauzatze bidean» dagoela azaldu dute. Sarrerren kasuan, Foru Aldunditik jasotzen den ekarpenak behera egiten jarraituko duen arren, Beasaingo Udalak «egindako aurreikuspenen bete bete asmatu» duela diote, eta saldoa aldekoa izango dela. Zeharkako zergetan berri, hirigintza arloko espediente baten irregulartasunak tarteko, udalak jaso beharreko 500.000 euroko kopurua atzeratu egingo da. 2013rako, Beasain Lantzenek izandako galerak ere eragina izango du, udalak 1.900.000 euroko zorra estali beharko baitu.

El ayuntamiento de Beasain ha puesto en marcha el proceso para la aprobación de los presupuestos de 2013. Para ello se están reuniendo con agentes sociales, culturales y partidos políticos, con el objetivo de aprobar los presupuestos antes de acabar el año, o como mucho en enero.

Los presupuestos estarán condicionados por la crisis; «no se podrá hacer todo lo que nos gustaría, pero el pueblo no se parará». Piden a todas las partes actuar con responsabilidad para llegar a acuerdos y establecer prioridades».

Los ingresos de las arcas públicas siguen descendiendo, llegando a estar por debajo de los 13 millones de euros, cantidad similar a la del año 2007. En cambio, los gastos corrientes siguen subiendo, por lo que el margen de gestión es cada vez más escaso. Aun así, en las cuentas que ha preparado el equipo de gobierno, se plantea mantener la cantidad prevista para inversiones. Debido a una irregularidad en la área del urbanismo, se retrasará el ingreso de 500.000 euros. La deuda de Beasain Lantzen, de 1.900.000 euros, también afectará a las cuentas de 2013.

## Gerrako fusilatuak omendu dituzte

Beasaingo herriak omenaldi jendetsu eta hunkigarria egin zien 1936 eta 1942 urteen artean fusilatutako herritarrei. Herriko dantzariak eta musikariak parte hartu zuten ekitaldian, eta jende ugari bildu zen Matias Enea zegoen tokian. Fusilatuen omenezko oroigarria ere jarri dute jada.

Beasain homenajeó a los vecinos que fueron fusilados durante 1936 y 1942, en un acto tan multitudinario como emotivo. Además, ya se ha colocado el monolito en su memoria.



Fusilatuei egindako omenaldiko une bat.

# Abenduan ere zinea eskura

Hilabete honetan ere zine eskaintza zabala izango da Usurbe Antzokian. Asteburuetako emanaldi komertzialez gain, Goieniz zine klubaren eskaintza ere ikusgai dago beasaindar guztientzat.

**U**surbe Antzokian zine eskaintza zabala izango da abenduan ere. Ohiko zine komertzialari Goieniz zine klubak antolatutako emanaldiak gehituko zaizkio eta biak egongo dira beasaindar guztien eskura. Hilabete honetan ere astelehena izango da ikusleen eguna, eta hamabi euroan hilabeteko bonoa erosi daiteke. *Lo Imposible* filma bonotik kanpo geratuko da.

En el cine Usurbe la oferta será amplia también en diciembre. Además del cine comercial también se podrá disfrutar de las emisiones que ofrece el cine club Goieniz. En diciembre el día del espectador seguirá siendo el lunes, y por tan sólo doce euros se puede adquirir el bono mensual. Este mes, queda excluida del bono la taquilla película *Lo imposible*.



## Abenduak 1-3

**Lo imposible.** Larunbatean 19:30-22:30, igandean 19:30-22:00, eta astelehenean 19:30-22:00.

**Diario de Grec.** Larunbatean eta igandean 17:00etan. Haurrentzako saioa.

## Abenduak 8-10

**Argo.** Larunbatean 19:30-22:30, igandean 19:30-22:00, eta astelehenean 19:30-22:00.

**Frankenweenie.** Ostegunean, larunbatean eta igandean 17:00etan. Haurrentzako saioa.

## Abenduak 13-17

**Four Lions.** Ostegunean 21:00etan. Goieniz zine klubaren zikloan.

**La saga crepúsculo. Amanecer** (bigarren zatia). Larunbatean 19:30-22:30, igandean 19:30-22:00, eta astelehenean 19:30-22:00.

**Hotel Transylvania.** Larunbatean eta igandean 17:00etan. Haurrentzako saioa.

## Abenduak 20-25

**Three.** Ostegunean 21:00etan. Goieniz zine klubaren zikloan.

**Pura vida** (euskaraz, gaztelaniazko azpitituluekin). Igandean 19:30-22:00 eta asteartean 19:30.

**Freddy Igeldegi.** Igandean 17:00. Haurrentzako saioa.

## Abenduak 29-1

**Fin.** Larunbatean 19:30-22:30, igandean 19:30-22:00, eta asteartean 19:30.

**Asterix eta Obelix.** Larunbatean eta igandean 17:00etan. Haurrentzako saioa.

## Arana kaleko obrak, hasita

Aste honetan bertan hasi dituzte Arana kalea eta Bideluze plazako zubia oineztatze lanak. Bost hilabete inguru, 19 aste, beharko dituzte lanak bukatzeko. Kale Nagusiaren eta Bideluze plazaren luzapena izango dira. Trafikorako erabat itxita egongo da obrak irauten duen bitartean.

Esta semana han empezado los trabajos de peatonalización de la calle Arana y el puente de Bideluze. Durarán cerca de 5 meses; mientras tanto, la calle estará cerrada al tráfico.



Arana kaleko lanak egunotan hasi dituzte..

## Karreratarrean, espalo berria

Karreratarren kalean espaloia aldatzen ari dira. Zaharra kendu eta asfaltatu egingo dute, kolore horixka emanaz. Koldo Agirrek esan duenez, «bizilagunek egin zuten eskariari erantzuna emango diogu, benetako beharra ikusten baitzen». 50.000 euro inguruko kostea izango du.

El ayuntamiento está renovando la acera de la calle Karreratarrak. Según el alcalde Koldo Agirre, «hemos dado respuesta a una petición de los vecinos». La obra costará 50.000 euros.





Asmube elkarteko abesbatza, iazko liburu eta disko azokan.

## 2 igandea

08:00 Mendi irteera: Donostia-Pasaia. Aizkorri mendizale elkarte.

## 3 astelehena

19:00 Mintzodromoa, Loinazko San Martin plaza azpian.

## 14 ostirala

12:00: Olentzeroren marrazki lehiaketako sari banaketa, Loinazko San Martin plaza azpian.

20:00 Antzerkia: 'Hil arte bizi'. Usurben.

## 16 igandea

08:00 Mendi irteera: Beasain-Zaldibia-Beasain. Aizkorri mendizale elkarte.

## 19 asteazkena

09:00 Peter Robertsen antzerki saioa eskolaumeentzat. Usurbe antzokian.

## 21 ostirala

20:00 Musika Eskolaren kontzertua. Loinazko San Martinen basilikan.

## 22 larunbata

19:30 Ostadar taldearen Gabonetako dantza jaialdia. Usurbe antzokian.

## 23 igandea

19:00 VII. Gospel jaialdia: The Upper Room Gospel. Igartzako jauregian.

## Erakusketak

**Abenduaren 9ra arte:** Argazki erakusketa: Igartzako Saria eta Beasaingo hiria argazki lehiaketan irabazleak. Usurben. Argizpi argazkizale elkarte.

**Abenduaren 13tik 30era:** XI. Goierriko artisten topaketa. Usurben.

## 24 astelehena

08:00 Mendi irteera: Aizkorri. Aizkorri mendizale elkarte.

12:00 Olentzero. San Martin plazan.

17:30 Gabon eskea. Igartzako multzotik.

## 25 asteartea

12:00 Udal Txistulari Bandaren kalejira, Beasaingo kaleetan zehar.

## 28 ostirala

20:00 Loinatz Abesbatzaren kontzertua. Loinazko San Martinen basilikan.

## 31 astelehena

08:00 Mendi irteera: Txindoki. Aizkorri Mendizale elkarte.

12:00 San Silbestre lasterketa herrikoia.

## Liburu azoka

**Abenduaren 14tik 16ra:**

Euskal liburu eta disko azoka, goizez eta arratsaldez, Loinazko San Martin plaza azpian.

## Gabonetako haur parkea

**Abenduaren 26tik 28ra:**

Gabonetako Haur Parkea. Antzizar kiroldegian. 16:00etatik 19:30era.

## Gabon Gaztea

### 26 asteazkena

11:00 Dantza ikastaroa.

17:00 Gaztelekuan play (Fifa) eta Wii (Mariokart) txapelketak.

### 27 osteguna

15:00 Trenez irteera Txuri Urdinera.

### 28 ostirala

11:00 Pilota partida Ezkierdi frontoian.

17:00 Elkartsun Topola eta txapa eta abalorio tailerra, plazapean

### 29 larunbata

17:00 Bideo tailerra.

19:45 Autobusa Euskal Selektzioaren futbol partida ikustera joateko.

### 30 igandea

17:00 Gaztelekuan ilea apaintzeko ikastaroa eta Diskogaztea musika festa.

### 31 astelehena

San Silbestre txikia.

### 2 asteazkena

10:00 Futbito txapelketa, kiroldegian.

17:00 Ping-pong eta mahai futbol txapelketa.

### 3 osteguna

10:00 3 x3 saskibalo txapelketa. Kiroldegian.

16:00 Frontoi txiki estalian skate txapelketa.

### 4 ostirala

09:30 Mendi irteera Gaztelekuetik.

17:00 Bideo tailerra.

### 5 larunbata

11:00 Gaztelekuan sukaldaritza tailerra eta bazkaria.

18:00 Erregeen zamalkada.

## beasain egunez egun

**Argitaratzailea:** Beasaingo Udala

**Helbidea:** Loinazko San Martin plaza

**Posta elektronikoa:** [udala@beasain.net](mailto:udala@beasain.net)

**Telefonoa:** 943 02 80 50

**Webgunea:** [www.beasain.org](http://www.beasain.org)

**Diseinua:** Biderra Zerbitzuak